

Erreforma fiskalari uko egiteak murrizketa sozialak eta pobrezia handiagoa eragingo ditu

2021erako Nafarroako Aurrekontuaren Proiektuaren eta Nafarroako Gobernua eta EH Bilduren arteko Akordioaren balorazioa

2020ko azaroaren 18a



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Egungo Nafarroako Gobernuaren bigarren Aurrekontua dugu hau; aurreko gobernuek bezala, honek ere ez du aukerarik eman gizartearen aldetik parte hartzeko modua izan zedin, eta horretarako aukera errealik ere ez da utzi: Nafarroako Gobernuak azaroaren 4an onartu zuen Aurreproiektua eta CESeko erakundeei bidali; azaroaren 9an, CESe bilera egin zen, eta, 11n, Ogasun Kontseilariak Aurrekontuaren Proiektua aurkeztu zuen Parlamentuan. Beraz, ez da denborarik ematen aurrekontua aztertu ahal izateko, eta are gutxiago Gobernuak CESe egiten diren proposamenak eta ekarpenak jaso ditzan Legebiltzarrerara bidali aurretik.

Errepikatu egin da, halaber, 2020ko Aurrekontua aurrera ateratzeko erabilitako formula. Aurtengo ekitaldiko aurrekontua egiteko Gobernuak EH Bildurekin akordioa sinatu zuen; duela egun batzuk ezagutzera eman dute 2021eko Aurrekontuari buruz ere akordio berri bat itxi dutela.

1. Aurrekontuaren muga estuak: Defizit helburua betetzeko politika antisozialak

2021erako aurrekontua guztiz baldintzatuta dago, austeritate politika eta defizit helburuak mugatzen baitute. Aurrekontu honek aurrekoen eredu austerizida bera dauka oinarrian

Chiviteren gobernua Estatuarekin defizitari buruz 2021erako %2,2ko erreferentzia-tasa hitzartu zuelako. Ezin da ulertu halakorik adostu izana: Pedro Sanchezen Gobernuak iragarri zuen 2020 eta 2021 ekitaldietarako arau fiskalak bertan behera geratuko zirela, Europar Batasunaren eremu guztian erabaki zen heinean.

Erabaki horrek autogobernuari erabat uko egitea dakar. Nafarroako Gobernuak aurrekontuen politika Madrilen erabakitzea erabaki du, eta ez Nafarroan.

Nafarroako beharrian sozialak pandemiaren ondorioz zeharo areagotzen ari dira. Europar Batasunak erabaki duen arau fiskalen etenari esker aurrekontuetan behar beste diru jar daiteke. Baina ez da halakorik erabaki. 2008ko krisian ikusi zen zor publikoaren hazkundera, zerga-erreformarik egin ezean, biharko gabeziaren oinarri dela. Europar Batasunean dagoeneko hasi dira eztabaidan, ea arau fiskalak zein urtetan hasi behar den ostera ere aplikatzen. Une honetan zorraren ordainari eman dioten lehentasunak eta aurrekontuen hazkunderari ezarritako mugetara itzultzeak murrizketa sozialak ekarriko ditu berriro, zerga-erreformarik egiten ez bada. Haatik, hau ez da Gobernuaren agendan ageri.

2. Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk sinatutako Akordioak erreforma fiskala kanpoan uzten du

ELarentzat oso albiste txarra da zerga-erreforma egiteko aukera baztertu izana; horrek diru-bilketa asko hobetzeko gaitasuna emango luke, enpresa-etekin, kapital, ondare eta errenta altuen zergak gehituta. Gaur egun Nafarroako fiskalitatea ahula da (EBko batez besteko maila baino 1.675 milioi euro gutxiago biltzen dira zerga bidez), injustua (zuzeneko zergatan biltzen diren 10eurotik 7 lan-errentetatik datoz), eta utzikieriaz jokatzen du enpresen, enpresa-errenta eta kapitalen iruzur fiskalarekin.

Sei urte dira UPN Nafarroako Jauregitik atera zela, eta, egia esan, fiskalitatea ia berdina da.

ELAren iritziz Nafarroako Gobernuak, PSN-PSOEek, Geroa Baik y Podemosek osatua, eta EH Bilduk sinatutako akordioarekin sortutako itxaropenak ustelak izango dira gai oso

garrantzitsuetan. Zehazki, akordioan Gobernuak hitz ematen du 3 ikerketa egingo dituela (sozietateen zergari, fiskalitate berdeari eta pentsioak 1.080 euroraino osatzeari buruz):

Lehenik, esan beharra dago Gobernuak soilik adierazten duela ikerketak egiteko asmoa; ez du neurri konkreturik aurreratzen. ELAren ustez akordioan horrelako ikerketak egingo direla esateak itxaropen okerrak pizten ditu, agian Gobernuak gai horietan benetako hobekuntzak egiteko asmoa izango duelakoan. ELA ez dator bat zerga-arloan inolako konpromisorik ez dakarten adierazpen zehaztugabeei balio politikoa ematearekin.

Baina errealitatea honakoa da:

1. Sozietateen zergari dagokionez, Europa guztian zehar diru gutxien Nafarroan biltzen da, Gobernu honi esker; gogoratu behar da Gobernu honen neurri fiskal nagusia izan dela Enpresen Ondarearen gaineko zerga kentzea.
2. Fiskalitate berdea gorabehera, Gobernu honen apustua AHT da, zeina gero eta jasangaitzagoa den bere kalte ekonomiko eta ekologikoengatik.
3. Azkenik, pentsioen kontuan Toledoko Itunak -PSOE, Unidas Podemos eta EAJren aldeko botoaz- eman dituen gomendioen ondorioz pentsioak berriz murriztuko dituzte.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren eta Bilduren arteko akordioak ez du exekutiboa derrigortuko duen ia neurri sozial bat ere jasotzen. Iazko akordioan bezala, aipamen lausoak egiten dira 0-3 zikloari, Finantzen Erakunde Nafarrari (ez da ezer esaten banku publiko batez) edota bulego baten sorrerari buruz, baina inola ere ez Gobernuak derrigor bete beharreko neurri zehatzik.

Bestalde, 1.925.000€ bideratuko dira EH Bilduren zuzenketa partzial batzuk finantziatzeko (iazko akordioan formula bera erabili zen, baina kostua 11.475.000 eurorena izan zen), eta testuan aurrez izandako bileretan gobernuak hartutako erabakiak ere sartu dira. Nolanahi ere, aurrekontuak 4.870 milioi euro izanik EH Bilduren esku 2 milioi euro jarri izanak agerian utzi du koalizio honen babesa medio ez dela proiektuaren orientazioa aldatu.

ELAk uste du akordioen balioa edukien eta aurrekontu-partidetan duten zehaztasunaren arabera neurtu behar dela. Akordio honek aldatzen duena ez da asko, eta, 2020ko aurrekontuan egin zen bezala, itxaropen faltsuak sortzen ditu (eduki errealik gabeko erreferentziak egiten ditu 1.080 euroko pentsioari buruz, 1.200 euroko gutxieneko soldatari buruz...).

3. Gizarte-beharrei aurre egiten ez dien aurrekontu-proiektua


3.1. 2021eko aurrekontu-proiektua 2020rako aurreikusitakoarekin alderatuz, %1,9 bakarrik igo da

Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektuak 4.870,5 milioi euroren gastua aurreikusten du 2021erako. Horrek esan nahi du 90 milioi (%1,9) baino ez dela handitu 2020rako aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura, 2020ko hirugarren hiruhilekoko aurrekontu-exekuzioari buruzko datuen arabera.

Aurrekontu guztiz kontinuista da, azken urteetako ildoaren jarraipena, hain zuzen. Are gehiago, pandemiatik kanpo egina dagoela dirudi. Osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi larriaren testuinguruan, BPGren %10etik gorako beherakadarekin, aurrekontu-politikak aurrekontua nabarmen handitu beharko luke, gizarte-partidak aregotzearen bitartez. Bada, adierazi dugun bezala, aurrekontuaren igoera %2 baino txikiagoa da 2020ko aurrekontu eguneratuarekin alderatuta.

2021erako proiektatutako aurrekontuak BPGren %23,8ko pisua dauka; hortaz, azken urteetako ildo berdina jarraitzen du. Gainera puntu horretan kontuan hartu behar da, halaber, 2020an BPGk zeharo egin duela behera pandemiaren ondoriozko egoera ekonomikoa dela eta (aurreikuspenen arabera, %12 eroriko da). Era berean, 2021eko aurreikuspenak ez dira onak (%6,5eko hazkunde-aurreikuspenarekin, aurreko urteetako BPGren oso azpitik geratuko litzatekeena), horrek aberastasunaren gaineko aurrekontuaren partaidetza handitzea eskatzen du.

BPGren bilakaera Nafarroan (milioi eurotan). 2008-2021



Iturria: Nastat

3.2- Nafarroako aurrekontua 716 milioi euro handitu beharko litzateke osasunean eta hezkuntzan, Europako batez besteko gastua berdintzeko

Osasun Departamentuak 1.253,6 milioi euroren aurrekontua izango du 2021ean, eta 2020rako eguneratutako aurrekontuaren azpitik geratuko da (1.259 milioi euro). Argi dago datorren urtean emango diren Covid-19aren olatuek ezin digutela pentsarazi 2021ean osasun-zerbitzuen eskaera

txikiagoa izango dugunik; beraz, 2021erako Osasunerako aurrekontu-zuzkidura ez da nahikoa, argi eta garbi.

Osasunera bideratutako gastua (milioi euro) 2010-2021

	2010	2015	2020 (aurreikuspena)	2021
Milioi euro	1.036,1	963,8	1.259	1.253,6

Hezkuntza Departamentuaren 2021eko aurrekontua 736 milioi euroena izango da. Gobernuak iaz egindako berregituraketarekin, unibertsitatei buruzko aurrekontua Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko beste sail baten mende egongo da. Beraz, konparazio homogeen bat egiteko, beharrezkoa da Hezkuntza Departamentuarentzat aurreikusitako gastuari unibertsitateei dagokien gastua (84,8 milioi euro) gehitzea; beraz, hezkuntzako gastua 820,8 milioi euroena izango da 2021ean, 2020rako aurrekontu eguneratua baino 43,3 milioi gehiago.

Hezkuntzara bideratutako gastua (milioi euro) 2010-2021


	2010	2015	2020 (aurreikuspena)	2021
Millioi euro	668,1	584,5	777,4	820,8

Iturria: Nafarroako Gobernua

Osasunean eta hezkuntzan egindako gastua Europako gainerako lurraldeekin alderatzean, Nafarroan egiten den gastu publiko eskasa nabarmentzen da. Osasun arloko gastu publikoa BPGren %5,1ekoa zen Nafarroan 2018an (eskura dagoen azken datua), EB-28ko batez bestekoa %7,1ekoa zenean eta Danimarka bezalako herrialdeek %8,3 bideratzen zutenean. Hori dela eta, Nafarroa EB-28ko posturik txarretan zegoen: soilik 10 estatuk gastatu zuten gutxiago.

BPGren bi puntuko gastu-diferentzia horren ondorioz, 2021ean Nafarroan osasunean egindako gastuaren batez bestekoa berdintzeko, aurrekontuan jasotakoa baino 409,6 milioi euro gehiago gastatu beharko liriteke (aurrekontuan 1.253,6 milioi euro sartu dira), hau da, %32,7 gehiago.

Osasunera bideratutako gastua (%BPG). EB-28, 2018




Iturria: Nafarroako Gobernua, Nastat, Eurostat

2018an, hezkuntzako gastu publikoa Nafarroako BPGren %3,1ekoa zen, EB-28ko batez bestekoa %4,6koa zenean.

Nafarroa EB-28ko bigarren posturik okerrenean dago, soilik Errumaniaren gainetik. Europar Batasuneko batez besteko gastuarekin alderatuta, BPGren 1,5 puntuko aldeak esan nahi du Nafarroan aurrekontuan jasotakoak baino 307,2 milioi euro gehiago gastatu beharko liratekeela (820,8 milioi euro), hau da, %37,4 gehiago.

Hezkuntzara bideratutako gastua (%BPG). EB-28, 2017



Iturria: Nafarroako Gobernua, Nastat, Eurostat

Guztira, osasunean eta hezkuntzan batez besteko gastua berdintzeko, 2021eko Nafarroako aurrekontua 716,8 milioi euro handiagoa izan beharko litzateke.

3.3- Errenta Bermatuaren murrizketek bere horretan jarraitzen dute

Errenta Bermatua (EB) 99,4 milioi euro gastatzea aurreikusten da 2021ean, hau da, 2020an aurreikusitako ia kopuru bera (98,8 milioi). Argi dago datorren urtean zehar EB eskuratzeko beharrak handituko direla, eta, ondorioz, aurrekontua aurkeztutakoaren gainetik handitu beharko da.

Errenta Bermatua emandako gastua (milioi eurotan) 2010-2021

2010	2015	2020 (aurreikuspena)	2021
30,8	65,8	98,8	99,4

Iturria: Nafarroako Gobernua

Hala ere, gogoratu behar da prestazio horrek jasandako murrizketa: Aurreko prestazioa (Gizarteratzeko Errenta) ordeztzeko Errenta Bermatua sortu zenean, LGSren erreferentzia kendu zen prestazioa kalkulatzeko oinarritzko zenbateko gisa, eta 600 euroren erreferentzia ezarri zen horren ordez.

Horren ondorioz, azken urteetan izan den LGSaren igoerarekin, Errenta Bermatua gero eta pisu handiagoa galdu du. 2020an, eguneratutako oinarritzko zenbatekoa 636,73 eurorena izan da, eta LGS, berriz, 950 eurorena.

3.4- Ia 500 milioi euro zor publikoan eta itzaleko bidesarrietan

2021ean 394,7 milioi euroren zor publikoa ordainduko du Nafarroako Gobernuak (2020an baino 40 milioi euro gehiago). Hau da, aurrekontu osoaren % 8,1 zor publikoa eta horren interesak eta gastuak ordaintzera bideratuko da. Edo berdina dena, Errenta Bermatuaren gastua halako lau. 2008tik 2021era, zor publikora bideratutako ordainketa metatua 4.117,7 milioi eurorena izango da.

Horri itzaleko bidesaria gehitu behar zaio, zor publikoarekin antzekotasun handia duen kanona. Obra handiak ordaintzeko erabili izan den mekanismoa da (Nafarroako Kanala edo A-21 eta A12 autobideak), non obra baten eraikuntza eta finantzaketa enpresa pribatu baten eskuetan uzten den eta Gobernuak hura erabiltzeagatik ordaintzen duen. Horrela, administrazioak epe laburreko zorpetzea saihesten du eta kontuak apaintzen ditu, nahiz eta epe luzera gastua askoz handiagoa izan.

2021erako Aurrekontuaren Proiektuak 96,9 milioi euro ordaintzea aurreikusten du itzalpeko bidesariagatik. 2008tik, gastu hori bikoitza baino gehiago handitu da.

Zor publikoa eta itzaleko bidesaria batuz gero, 2021ean 491,6 milioi euro gastatuko dira, aurrekontuaren % 10,1.

Gastu osoa zor publikoan eta itzaleko bidesarian (milioi eurotan) 2008-2021

	2008	2010	2015	2020	2021
Zor publikoa	28,2	144,1	414,3	354,4	394,7
Itzaleko bidesaria	41,6	43,9	68,2	100	96,9
Guztira	69,7	188,1	482,5	454,4	491,6

Iturria: Nafarroako Gobernu

4. Ondorioak

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako aurrekontu proiektua aurreko urteetako aurrekontuen bide berdinetik doa. ELAk adierazi izan du Europar Batasuneko arau austerizidekin lerratutako aurrekontu-politika horrek ez ziela erantzunik ematen Covid-19aren aurretik zeuden behar sozialei. Pandemiak krisi sanitario, sozial eta ekonomiko batean jarri gaitu, eta horrek aurrekontu-igoera nabarmena eskatzen du, baina aurkeztutako aurrekontuak ez du hori jasotzen.

EH Bilduk ontzat eman du aurrekontu proposamena, zeinak, behar sozialei ez erantzuteaz gain, uko egiten dio diru-bilketa nabarmen handituko duen zerga-erreforma bati, enpresen etekinei, ondareei, kapitalari eta errenta altuei zergak igoz. Zerga-bilketaren galera zorraren bidez konpentsatzeak ibilbide laburra du egungo arau-esparruan. Erreforma fiskalik gabe, murrizketak etorriko dira datozen hilabete eta urteetan, 2008ko krisiaren ondoren gertatu zen bezala.

Beraz, agerikoa da aurrekontu proiektuan hazkunde esanguratsurik ez dagoenez eta duen kontinuismorekin, akordio hau ezin dela urrats gisa hartu zerbitzu publikoak indartzeko eta krisiaren ondorio sozialei erantzuteko bidean. Oso agerikoa da aurrekontu baten orientazio ezkertiar eta aurrerakoiak aurkeztutakoak baino irismen handiagoko erabakiak behar dituela. Aurrekontu bat soziala den edo ez haren edukiak zehazten du, ez haren sinatzaileak nor diren.

ELAk uste du beharrezkoa dela aurrekontu- eta zerga-politikak errotik aldatzea.

Aurrekontuen eremuan, Osasun edo Hezkuntzako aurrekontu-zuzkidurak Europako batez bestekoarekin parekatzea bezalako neurriak hartu behar dira; mendetasun-egoeran dauden pertsona guztien beharrak sistema publiko, unibertsal, doako eta kalitatezkoaren bidez estalita izateko eskubidea aitortzea; alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea bermatzea eta egoera ahulean dauden pertsonen etxe-gabetzeak debekatzea; pentsioen osagarria 1.080 euro arte; langabezian dauden pertsona guztiek LGSren gutxieneko diru-sarrerak izateko prestazio bat ezartzea; edota EBren murrizketak alde batera uztea.

ELAk, Nafarroa Suspertzeko Planari egin zizkion eta kontuan hartu ez ziren proposamenetan, urtean 900 milioi euro baino gehiago biltzeko 3 zerga-neurri ere proposatu zituen: Sozietateen gaineko Zergan % 20ko errekarua, Ondarearen gaineko Zerga % 1 eta % 10 artean kokatzea eta PFEZren gehieneko tasa % 60an finkatzea.

Horietako bat ere ez da jasotzen Nafarroan onartuko diren aurrekontuetan. Horregatik, urte osoan zehar egin ditugun eskaerak (urtarrilaren 30eko greba orokorretik, pandemiaren hasieratik planteatu ditugun aldarrikapenetara) indarrean daude oraindik.

ELAren ustez, ezinbestekoa da Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea indargabetzea eta Konstituzioaren 135. artikulua ondoriorik gabe uztea, zorra ordaintzeari lehentasuna ematen baitio gizartearen premien gainetik.

ELAk uste du beharrezkoa dela mobilizazio sozialean sakontzea. Horregatik, aurrekontu horiek baztertzeko eta aurrekontu- eta zerga-politikak errotik aldatzeko egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu. Aldaketa hori posible eta premiazkoa da.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA